



**XEDEA**  
(JARDUERA MOTA)  
Oztopo-bidea.



**IRAUPENA**  
50'



**MATERIALAK**  
Paper-orriak.

Errotulagailu lodiak.

Zeloa.

Koloreetako post-itak.

Boligrafoak edo  
arkatzak.

Oztopo gisa erabili  
daitezken objektuak:  
aulkiak, sokak, konoak,  
etab.



**HELBURUA**

Hautzaroko eta  
nerabezaroko  
pobrezia-egoerek  
osasun-baliabideak  
eskuratzea nola  
zailtzen duten,  
mundu guztiarentzat  
aukera-berdintasunik  
ez egotea zerk  
baldintzatzen duen  
eta konponbideak  
proposatzea  
hausnartzea.

# “OSASUNERAKO OZTOPO-LASTERKETA”

## GARAPENA

1. Talde osoaren artean, Osasunerako Eskubideari buruzko [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren](#) 24. artikulua irakurtzen da, eta osasun-baliabide bat zer den aipatzen da.

- CDNren 24. artikulua. “1. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek eskubidea dutela ahalik eta osasun-maila handienaz gozatzeko eta gaixotasunak tratatzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak izateko. Estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzte ziurtatzeko haur batek ere ez duela osasun-zerbitzu horiek baliatzeko eskubidea galduko”.

[CDNren bertsio egokituaren](#) esteka 9 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. ([pdf bertsioa](#)).

- Osasun-baliabideak: osasun-sistema bat osatzen duten elementu eta/edo bitarteko guztiak dira (azpiegiturak, zerbitzuak, materialak).

2. Ideia-jasa bat egiten da zer osasun-baliabide ezagutzen dituzten edo sarbidea izan beharko luketela uste duten jakiteko, eta bakoitzak letra handiko orri batean idazten du. Baliabide batzuk taldeka daitezke, adibidez, traumatologoa, dermatologoa eta antzeko hainbat kontsulta mota esaten badira, espezialitateetako zentro mediko gisa taldeka daitezke.

- Osasun-zerbitzuen ideia batzuk honako hauek dira: pediatria, erizaintza, txertoak, botikak, farmazia, betaurrekoak, ortopedia, odontologia, oftalmologia, psikologia-unitateak, psikiatria-unitateak... eta beste espezialitate mediko batzuk.

3. Baliabideen kartelak espazioaren albo batean jartzen dira, elkarri itsatsita, haien arteko distantzia gera dadin. Kartel bakoitzera lerro zuzenean iritsi arte distantzia bat izateko gunea izan behar du, “oztopo-lasterketa” bat egin ahal izateko.

Oharra: baliabide kopurua edo horien taldekatzea egiteko, kontuan hartuko dira taldearen ezaugarriak eta gaitasunak eta baliabide gehiago edo gutxiago gelditu ahal izateko dagoen denbora.

4. Ondoren, osasun-baliabide bakoitzera iristeko dauden zailtasunak aipatzen dira, eta post-it edo eranskailuetan idazten dira, eta agerian jartzen dira baliabide bakoitzaren aurretik oztopo izango diren objektuetan. Baliabide bakoitzerako oztopo kopuru desberdinak egon daitezke.

- Oztopoa zailtasun gisa irudikatzea: diskriminazioa, zaurgarritasuna, eskasia, etab.
- Jarduerarako oztopo fisiko batzuk hauek izan daitezke: aulkiak azpitik pasatzeko, aulkiak gainetik salto egiteko, sokak gainean orekan ibiltzeko, konoak inguruan 3 bira emateko, etab.

9 - 12  
URTE



Osasuna

# “OSASUNERAKO OZTOPO-LASTERKETA”

## GARAPENA

5. 2 edo 3 pertsonako taldeak osatzen dira, eta talde bakoitzak baliabide bakoitzera iritsi behar du, konponbideak eta proposamenak asmatzeko. Ibilbideko oztopo bakoitza gaindituz aurrera egin ahal izateko, ideia bat idatzi behar da: nola gainditu oztopoa, post-it batean idatzi eta irudikatzen duen objektuaren ondoan itsatsi.

Oharra: garrantzitsua da baliabideak eskuratzeko ideiak desioak ez izatea, baizik eta proposamen zehatzak izatea, hau da, ez izatea “pediatra gehiago egotea”, baizik eta “pediatra gehiago kontratatzea eta osasun-zentro guztietan egotea”, edo ez izatea “pertsona guztiek beturrekoak izatea», baizik eta “beturrekoak doakoak izatea haurrentzat”, etab.

6. Jarduera amaitzen denean, talde osoarekin bateratzen da, talde guztien proposamenak ikus daitezten.

## HAUSNARKETARAKO GALDERAK

### Zer ikusi duzu / zer dakizu (behaketa)

- Zer motatako osasun-baliabideak ezagutzen dituzue?
- Haur guztiek dituzte osasun-baliabide guztiak? Zeintzuk bai? Zeintzuk ez?
- Zer neska-mutilek ez dituzte osasun-baliabide batzuk?

### Zer pentsatzen duzu (iritzia)

- Zuen ustez, zergatik dute haur eta nerabe batzuek osasun-baliabide gehiago eta beste batzuek gutxiago?
- Zuen ustez, nolakoa da osasun-baliabideak eskuratzea zailena duten haurren eta nerabeen ingurunea?
- Eraginik izan al dezake haur eta nerabeen bizitzan osasun-baliabide batzuk ez izateak? Nola?

### Zer proposatzen duzu (proposamenak)

- Zer egin beharko litzateke haur eta nerabe guztiek osasun-baliabide berberak izan ditzaten?
- Nola lor liteke haur eta nerabe kalteberenentzat osasun-baliabide gehiago egotea?
- Nork arduratu beharko luke haur eta nerabe guztiek osasun-baliabide berberak izateko aukera-berdintasuna izateaz? Nola?

## JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

Aldez aurretik bisita bat egin daiteke inguruan dauden osasun-zentroyen batera eta osasunarekin lotutako guneetara, dauden baliabideak zein diren jakin dezaten eta falta direnak detekta ditzaten.

Talde guztiek baliabide guztien proposamenak egiteko astirik ematen ez badute, baliabide bakoitzeko edo baliabide bat baino gehiagotarako bana daitezke taldeak. Ahal bada, taldeek beraiek aukeratu behar dute zein baliabidetara iritsi nahi duten.

Baliabide desberdinen proposamenak jasotzean nahastu ez daitezten, kolore desberdinetako post-ita jar daiteke baliabide bakoitzerako.

## ONDORIOAK IRAULTZEKO FORMULARIORAKO ESTEKA

9 - 12  
URTE



Osasuna